

36ko Gerra

19 zbk.

2006ko uztailaren 2a

Amasa-Villabona... Bai iragan ona!

LUMIARTE



Frontean borrokatu zuten hainbat mutil atseden hartzen.

36ko Gerra etorri zenean, *Lumaneko* gazteenek, ez zekiten ezer politikaz eta gerraz ere, ezer gutxi. Eskolan ikasi zuten Independentziaren gerra esaterako, eta gudua, bi alderdiren arteko borroka zela zekiten juxtu-juxtu. Euren azalean biziko zituzten gerora gerraren gogortasuna eta horren ondorio mingarriak; senide maitatuak galzteza, espetxeratzek, ile-mozteak, erbestea, miseria, ezinikusiak... 36ko Gerrak iraun zuen bitartean, beldurra gailendu zen izki-

na guztietan. Orduz gero urte asko igaro den arren, oraindik ere ez dira guztiz sendatu barruan gordetako zauriak. Bildumako gairik potoloenean, gerra garaiko Amasari eta Villabonari erreparatuko diegu eta beste kontu askoren artean, inolako errurik gabe fusilatu zituzten hainbat herritarren izenak ekarriko ditugu gogora. Urte luzetan isilpean gorde den gai labainkorra dela badakigu eta, ez genuke inor mindu nahi baina, gertaera latzeak izan ziren aipamenik gabe uzteko.

GERRA AURREKO TESTUINGURU POLITIKOA

Villabonan, gainerako herrietan bezalaxe, alderdi ezberdinetako egoitzak zeuden. Errepublikarrena, UGTrena, Sozialistena eta CNTrena, ezkerrekoen alderik. Eta Batzokia, Emakumeen Zentrua edo 'Círculo Carlista' eskubikoen baitan. Aipatu alderdi politikoetako kideak euren egoitzetan biltzen ziren aisia igarotzera; basoerdiak hartuz, kartetan jolastuz... "Egun Behar Zana elkar-
tea dagoen horretan zegoen Batzokia eta besteak beste, antzerki emanaldiak egiten ziren euskaraz. Dantza taldea ere bazen, neskenahiz mutilena. Andoaingo Pello Ugalde zen dantza irakaslea, Martin Ugalderen aita", azaldu du Jabier Berasaluzek. "Círculo Carlista"ko kideak, Barbe ferre-

teriaren gainean elkartzen ziren, Kale Berrian. Zinea ematen zuten han; zine mutua, mendebaldeko pelikulak, bakeroenak...". Emakume nazionalistek ere bazuten lehen txokoa, "Lertxundi etxearen lehen pisuan biltzen ziren. Egungo Kultura Etxearen pare-parean". Errepublikarrek bi egoitza izan zituzten, "Kale Nagusian, Barbe drogeriaren goran biltzen ziren lehenik. Gerora Arregineko etxean izan zuten txokoa, lehen solairuan". Gainerako alderdien egoitzak ere Kale Nagusian zehar zeuden banatuta. Urtero aldarrikapen jaia egiten zuen alderdi bakoitzak, "errepublikarrek apirilaren 14an ospatzen zuten beren eguna. Nazionalistek, Aberri eguna Pazko



Jabier Berasaluze

*"Egun Behar Zana elkar-
tea dagoen horretan zegoen
Batzokia eta besteak beste,
antzerki emanaldiak egiten
ziren euskaraz"*

igandean. Agian, maiatzaren 1eko Langileen eguna zen ospakizunik garrantzitsuna. Bazkari eta bileren ondoren, *Internazionala* kantua abesten zen". Jabier Berasaluzek Villabona herri baketsua zela gogoratzen du, "herritarrek, alderdi ezberdinetakoak izanda ere, tratatu ona zuten elkarren artean; elkar laguntzen zuten".

36ko Gerra lehertu zenean, ordea, bereizi egin ziren alderdi politiko guztiak. Errepublikaren alde egin zuten batzuek, Francoren alde besteek. Abertzaleak errepublikarrekin elkartu ziren, Francorekin karlistak. Jakina, liskar handiak sortu ziren alderdien artean eta jende errugabe askok gogotik ordaindu zuen. Francoren gidaritzapean, espetxeak nahiz kontzentrazio esparruak lepo bete ziren, epaiketarik gabeko fusilaketek bidea ireki zitzairen... Modu horretan abiatu zen horrenbeste urte iraungo zuen diktadura. Goazen, bada, poliki-poliki aurrera.



Villabonako errepublikarrak, 1934 urteko Errepublika egunean, plazan.

NAZIONALISTEN MITINAK AMASAKO VILLA ALFONSINAN

36ko Gerra iritsi aurretik, mutil eta neska koxkorrak ziren *Lumaneko* kideak, "orduan ez ginen jabetzen zer zetorki-

gun!". Seina urte zituzten taldeko gazteenek: Maria Luisak eta Maritxu Mendizabalek, hogeitauro helduenak: Isabelek.

"Gerra hasi aurretik, nazionalistak botoak botatzen gogoratzen ditut", ekin dio Maritxu Gonzalezek. "Orduan galdu

36ko Gerra

zuen hanka Zufiriak". "Bai, bai; garai hartako autoen estriboan zihoan Zufiria, autoaren kanpoaldean. Beste kotxe batek parez jo eta hanka galdu zuen, hara!", gehitu du Pakok. Gerra hasi aurretik Amasan mitinak egiten zituztela ere aipatu du sarreran Maritxuk, "Frantsesanea moduan ezagutzen den etxearen kanpoaldean, Villa Alfonsinan, mitinak egiten zituzten nazionalistek. Ahizpari entzun

izan nion nola, besteren artean, gure osaba Hilario Odriozola, Esteban Arrieta eta Julian Otegi amasarrek hartzen zuten parte. Ikurriña eta guzti joaten omen zen azken hori. Haietako bat baino gehiagori frontera joatea egokitu zitzaion gero. Txapela gorria jantzi behar izan zuen gure osabak ere, hilko ote zuten beldurrez. Balak jo eta hil egin zen baina, bizirik zegoen bezalaxe ekarri zutela esaten zen".



Maritxu Gonzalez

"Frantsesanea moduan ezagutzen den etxearen kanpoaldean, Villa Alfonsinan, mitinak egiten zituzten nazionalistek"

GERRAREN ETORRERA ORDUKO HAUR ETA GAZTETXOEN BEGIETATIK

Villabonan, 1936ko abuztuaren 16an altxatu ziren militarrek, "Amabirjina bigarrenean ailegatu ziren herrira, igandea zen. Orduan ez ziren bertan geratu, Andoain aldera pasa ziren". Aurretik, ordea, izan zen beste gertaerarik herrian, "militarrei herrirako sarrera galarazteko, abuztuaren 13an, ostegun gauean, Zubimusu zubia bota egin zuten gorriek. Oraindik ere nabari da nola berritu zuten gerora zubia. Villabona aldera, hiru zulo egin zizkioten zubiari, hiru dinamita jarri baitzizkioten". Ekintza hark eragina izan zuen herritarrengan, "hutsik geratu zen herria orduan; ez zuri eta ez gorri. Jaiean sartu ziren Villabonara; bai, bai, abuztuaren 16an", azaldu du Pellok inolako zalantzarik egin gabe. Gerra Amasara nola iritsi zen gogoratu du Roberto Garatek, "Frankistak Belabietatik Amasara sartu zirenean, metrailetekin egin zuten eraso. Hainbat balek, elizako dorrea jo zuen. Meza nagusia ematen ari ziren elizan eta herritarren batek azaldu zion egoera apaizari. Segidan meza eten eta lasterka babes bila abiatu ziren gerturatutako guztiak. On Jose Baztarrিকা apaiza, hilko ote zuten beldurrez, Artatoloxa baserrira abiatu zen. Esku zabalik hartu zuten han. Muttegiako guardarekin hitz egin eta bi egunez egin zuen lo hango txabolan, soldaduak Donostia aldera abiatu ziren arte". Amasar eta villabonatar asko, inguru-



Pello Iribar

"Frankistei herrirako sarrera galarazteko, abuztuaren 13an, ostegun gauean, Zubimusu zubia bota egin zuten gorriek"

ko herrietara joan zen babes bila, gutxiagok erabaki zuen herrian bertan geratzea. Gaurko hizlariak, egoera zail haren aurrean hartu zuten erabakia azaldu digute. "Gure aita Portuneko nagusiaren txoferra zen. Gerra hasi zenean, alde egin zuen eta ez genuen sekula berriro ikusi. Ama geratu zen anaia eta biokin. Hementxe, Villabonan bertan", gogoratu du Pakitak. Pelloren familiak ere erabaki berbera hartu zuen: Villabonan geratu ziren. Baita bezaratarrek ere, "etxean geratu ginen. Ez ginen inora joan". Berasaluzetarrek ere berdin, "ama, arreba eta hirurok geratu ginen etxean. Aitak ihes egin behar izan zuen, errepublikarra zelako". Egiñotarrak, berriz, Villabona utzi eta Zizurkilera joan ziren, "gu Zizurkileraino joan ginen familiako batzuen baserrira. Astebete igaro ondoren, 'goazen etxera!' esan eta itzuli egin ginen". Familia batek baino gehiagok egin zuen ihes Zizurkilera, tar-

tean etxeniketarrek. "Gu ere Zizurkilera joan ginen, Zapei baserrira. Hamabost bat egun igaro eta berriz ere etxera". Gerra hasi zenean, seguruagoa ote zen Zizurkil Villabona baino? "Egia esan, igual-iguala. Donostiako militarren kuarteletik ekarritako kanoiak jarri zituzten Amasan eta Fraisoron. Botatzen zituztenean, beldurra ematen zuten *pum* eta *pum* hotsek. Mahaiak eta guzti mugitzen ziren kanoien dardararekin. Ahal zuenak, martxa egin zuen badaezpada". Gertutik gertura alde egiteko erabakia beldurra uxatu baino gehiago, baretzeko modua zen. Babesa aurkitzeko nahia. Maritxu Gonzalez eta bere familia Aiara joan ziren, "aitaren jaiotetxera alde egin genuen guk. Hilabete inguru egin genuen han. Gero, aita joan egin zen eta gu etxera". Etxera itzultakoan, ordea, ez zen amesgaiztoa bukatu inondik inora. "Etxera itzuli eta gauza asko falta. Izugarritzko lapurretak egin zituzten herrian. Lapurreta handiena pe-reztarren etxean egin zutela esaten zen. Koltxoiak, arropak..., denetik eraman zuten". Villabonatik alde egin ez zutenek, Tolosa eta inguruko herrietatik jendea nola zetorren ikusi zuten, "Tolosaldetik ihesi zihoan jende asko eta asko pasa zen Villabonatik. Maletak, armarriak..., denetik karroan hartuta. Donostia edo Orio aldera zihoazen gehienak. Handik, ahal zuenak Bilbora iritsi nahi zuen".

BONBARDAKETARIK EZ, BAINA IZUA HEZURETARAINO SARTUTA

Haur eta gaztetxoak gerraren etorreraz gehiegi jabetzen ez baziren ere, izua barruraino sartuta zegoen herritarren artean, "makila puskak hartu eta traineruetara jolasten ari ginen lagunak, orain Errota auzoa dagoen horretan.

Bat-batean, *erreketek datoz eta zoazte etxera! Zoazte etxera!!!*, oihukatu ziguten txapel-gorriak ikusi zituztenen batzuk. Abiatu ginen korrika etxera eta, nor izango? Mikeleteak! Pentsa zertarainokoa zen beldurra", gogoratu du Anjelek.

Hizlariak azaldu dutenez, Amasan nahiz Villabonan, apenas izan zen bonbardaketarik. "Amasan bai, elizaren ondora bonba bat bota zuten airez. Ez zuten eliza harrapatu baina zulo ederra utzi zuten lurtean. Gorriak elizaren aur-



Anjel Egiño

"Erreketek datoz eta zoazte etxera! Zoazte etxera!!! oihukatu ziguten txapel-gorriak ikusi zituztenen batzuk"

kakoak zirenez, eliza ondoratu nahiko zuten baina, ez zuten lortu. Apaiz as-

kok, kalera ateratakoan, sotana kendu egiten zuen bere burua babestuz, nor zen agerian gera ez zedin". Solaskideek inguruko bonbardaketarik gogorrenak Donostian izan zirela aipatu dute eta villabonatar bat baino gehiago egokitu zela hantxe, erdi-erdian. "Villabonako Paka Arratibelen bi alaba hil ziren Donostiako bonbardaketa haietakoren batean. Emakume gaixoa! Senarra ere desagertu egin zitzaion gerran". Villabonako beste emakume batek ere Donos-

tiako bonbardaketen ondorio larriak jasan zituen, "Maria Leturiondok hanka galdu zuen". Amasan eta Villabonan aurrez aipatu ditugun kanoien burrunba entzuten zen tarteka; hots beldurgarria. Amasako plazan jarri zuten kanoietako bat. Plaza inguruko baserriak hutsik geratu ziren; Seroetxe, Amallu, Arantzalde... Haietako hogeitatu lagun, emakumeak eta umek bereziki, Pasu baserrian babestu ziren kanoien burrunbatik ihesi.

AMASAR ETA VILLABONATAR FUSILATUAK GOGOAN

Gerra anker haren ondorio zentzugabe eta latzenak fusilaketak izan ziren, zalantzarik gabe. "Fusilatu zituzten guztien bekatua errepublikaren aldekoak izatea zen. Abertzaleak, euskaltzaleak... Horixe guzti-guztia. Gizajoak! Inolako errurik gabe hil zituzten. Zerrendaren bat egongo zen eta zuzen betetzen zen han agindutakoa. Errepublikar askok eta askok ihes egin zuen. Eskerrak! Gupidarik gabe akabatuko baitzituzten bestela. Beste askok eta askok frankisten bandoan hartu zuen parte gerran. Zer erremedio bizirik jarraitu nahi bazuten!"

Zerrenda luzea osatu dugu fusilatuen izenekin. Hizlariak saiatu dira saiatu, baina ez dute beste izenik gogoratzerik lortu. Hala ere, seguru diote herritar gehiagori kendu zietela bizia. "Amasan eta Villabonan, hama-bostetik gora izan ziren fusilatutakoak". Inork beste izenik edo daturik erantsi nahiko balu, eskertuko genuke gurekin harremanetan jartzea.

JOSE JOAKIN ARIN OIARTZABAL:

Amasako Garmendi Txiki baserrikoa. Arrasateko artzapezpikua zen. "Arrasaten elizkizuna ematera abiatu zen batean; *Grite usted Viva España*, esan zioten behin eta berriz. Halako batean esan omen zuen eta; *grite usted más alto*, beste hiru bider. Herriko jendea dena harriritu zegoen. *Ahora grite usted abajo el clero vasco*, eta osabak, *eso jamás*, erantzun zuen", Rosario Garinek ondo gogoan duenez. "Horrela ibili eta gero, hiru apaiz hil zituzten batera. Jendea ez konturatzegatik, taxian eraman zituzten Ondarretako espetxeraino. Han astebete eskas eginda, goizeko bostetan kartzelatik atera eta Oiartzunen fusilatu zituzten, 1936ko urriaren 25ean, hilerriaren kanpoko pare-taren kontra". Haien gorpuak aurkitzeko



Pakita Lasa

"Fusilatu zituzten guztien bekatua errepublikaren aldekoak izatea zen. Abertzaleak, euskaltzaleak... Horixe guzti-guztia. Gizajoak!"

lagungarri izan zen sotana. "Sotana jantzita lurperatu zituzten hiru apaizak. Gorpuen bila hasi zirenean, sotanen botoi ilara luzea azaldu zen lur azpian". 64 urte zituen.

KRUX IRIBARREN:

Zizurkilgo Aurreran bizi zen apopilo. Portu papertegian egiten zuen lan.

JUAN ETXENIKE:

Subijanako langilea. Bost seme-alaben aita. "Hil baino lehenago bidali egin zuten lan-tegitik. Nonbaitetik jan beharra zegoenez, hamabost urte nituela, aitarekin Buruntzako harrobira lanera joaten hasi nintzen. Lanetik bueltan, gau batez, hurrengo goizean Subijanara lanera itzultzeko abisua eman zuten. Gau horretan bertan eraman zuten etxetik eta akabo. Salatu egin zuen Subijanako nagusiak, Anttonek". Pakok argi eta garbi gogoratzen du nola eraman zuten aita, "afaltzen ari ginen. Hiru hilabeteko anaia besoetan zeukan bila etorri zirenean". Fusilatu aurretik preso eduki zuten, "Tolosan aurrena, Ondarretan gero. Beste askoren artean, Maximino Erostarbe, Daniel Arrillaga eta Zipriano Cardenalekin batera eduki zuten han. Ondarretako espetxean preso zeudela, Antton Subijana ikusi zuen gure amak Donostian. Diputatu zegoen

orduan. Laguntzeko eskatu zion, baina presaka zebilela erantzun zion hark; trantzia hartu beharra zeukala. Aita bisitatzera joaten ginen gu tarteka espetxera, hauxe izan zen jaso genuen azken erantzuna. *Ya han salido libres, andarán de juerga*. Gero jakin genuen ordurako Beran fusilatu egin zituztela. Azaroaren 15ean hil zituzten eta hantxe lurperatu. Kasualitate, Beran jaioa zen gure aita".

MAXIMINO EROSTARBE BAZTARRIKA:

Portu papertegiko langilea. Perretxikuak biltzea eta ehiza zituen gustuko. Beran fusilatu zuten 1936ko azaroaren 15ean. 39 urte zituen. (*Lumane* aldizkariko Anjel Egiñoren osaba).

ZIPRIANO CARDENAL:

Txistularia. Batzokian txistua jotzen zuelako fusilatu zuten Beran, azaroaren 15ean. 18 urte zituen.

JOXE MANUEL GARMENDIA URKOLA, 'PORTOTXA':

Kale Nagusian bizi zen. Obretan egiten zuen lan. 1936ko urriaren 1ean fusilatu zuten. 47 urte zituen.

DANIEL ARRILLAGA TOLOSA:

Portu papertegiko langilea. Atabalaria. Bost seme utzi zituen. Azaroaren 15ean fusilatu zuten Beran. 40 urte zituen.

VALERIANO SAIZAR ARTEAGA:

Gerra baino lehen Villabonako alkate izan zen. Zarautzen hil zuten 1936ko urriaren 9an. "Tiroa bota eta lurrera erori omen zen zaurituta. Fusila eskuetan zuenari; *Apunta*

36ko Gerra

bien, traidor esan omen zion lurretik". 72 urte zituen.

JOSE INAZIO GARMENDIA:

Portu papertegiko langilea.

JOSE INAZIO ETXEZARRETA:

Amasako Izarre baserrikoa. Alegian fusilatu zuten eta bertan lurperatu. "Diru kontuak tarteko, gerraren izenean, bengantzaz hil ote zuten esaten da".

ASINTXIO ARRETXE:

Amasako Xandra baserrikoa. "Militarrekeramango ote zuten beldurrez, ezker eskuko behatzak moztu zituen aizkora batekin. Soldadu eraman zuten gero. Han, kangrenak

jo ote zuten-edo, ospitalera eraman zuten. Bertako mojek eskutitz bat bidali zuten etxera, senideez asko gogoratzen zela esanez". Zalantza egiten da haren heriotzaren inguruan; ospitalean bertan hil zitekeen edo fusilatu egin ote zuten ere aipatu da.

LUKAS LASA:

Portu papertegiko nagusiaren txoferra. Semea eta alaba zituen. "Lantegiko nagusiekin joan zen Bilbora. Denborak aurrera egin ahala, hark etxera etorri nahi zuten emazte eta seme-alabarengana. Itzulerako bidea hartu zuenean, harrapatu eta hil egin zuten. Ez dakigu garbi nork". (*Lumane* aldizkari-ko Pakita Lasaren aita).

Amasan eta Villabonan oihartzun gehien sortu zuen hilketa Valeriano Saizar Artea-

garena izan zen. "72 urteko agurea apaiz militantea zen. Hurren zegoela, Saizarrek apaiz faxista baten bisita izan zuen baina ez zuen onartu. *'Bizitza osoan sinetsi egin dut eta kristau erlijioa praktikatu. Orain ez dut sinesten jada. Ez dut praktikatu nahi'*" aitortu zuen.

Gainerakoan, gerran soldadu ibili ziren herritar gazteak ezin zenba daitezke. Hildakoak asko izan ziren. Asaltoren batean hil zenik ere izan zen. "Naparrak sartu baino lehenago herritik eraman egin zituzten hainbat karlista. Anarkistek Rafael Garaialde karlista villabonatarra hil egin zuten Bilboko kartzelan asaltoa egin zutenean. Cuevas maixua, Moises Barbe eta Jose Castro karlistak preso egon ziren, baina bueltan etorri ziren haiek. Kartzelatik etorri eta gero joan ziren frontera".



Jose Joakin
Arin



Juan
Etxenike



Zipriano
Cardenal



Daniel
Arrillaga



Valeriano
Saizar



Jose Inazio
Etxezarreta



Asintxio
Arretxe

EMAKUMEEI BURUA ZURI-ZURI

Gerrak ezberdin jokatu zuen emakume nahiz gizonekin. Errepublikak defendatzen zuten gizon asko eta asko fusilatu egin bazituzten, ez zuten gauza bera egin emakumeekin. Emakumeei, oro har, bizia errespetatu egin zieten arren, nahikoa sufrimendu ez eta, lotsarazi egiten zituzten. Gainerako herrietan bezalaxe, Villabonan ilea sustraitik moztu zieten emakumeak ez ziren bat

eta bi izan. "Nafarroatik zetozen tropek Irualdeta zaharrean jarri zuten kuartela. Egunero-egunero hara sinatzera joatera behartzen zituzten herriko hainbat emakume. Villabonan lauri moztu zieten ilea, buru zuri-zuri uzteraino. Petra Bidaor eta Ebarrista Sasianbarrena izan ziren haietako bi. Garai hartan umiliazio handia zen hori". Ilea moztea gutxi ez bazen, herrian zehar

bueltaka ibiltzera behartzen zituzten. "Bizkarrean espainiar bandera hartu eta herria zeharkatuz, *Viva España* oihukatu arazten zieten; egunero-egunero, bai". Errepublikaren aurka zeuden villabonatar emakumeei 'laguntzen' zieten herria goitik behara zeharkatzen. "Herritarrak herritarren kontra. Horixe izan zen gerra haren alderdirik ilunena", onartu dute aho batez.

ABERTZALEAK UDALETIK KANPO

Gerra lehertu zenean, Federiko Urdapilleta nazionalista zegoen alkate. Baina herri guztietan bezala, hemen ere abertzaleek boterea galdu zuten, "alkate nahiz zinegotzi nazionalistek alde egin behar izan zuten, beldurraren beldurrez". Gerra ondorenean, Juan Barbe izan zen Franco garai-ko lehen alkatea. Hizlariek, aldaketa nabarmena izan zela adierazi dute, "goitik behe-

ra aldatu ziren ohiturak. Diktadura ezarri zen. Lehen ikurriñak zeuden tokietan, espainiar banderak jarri arazi zituzten. Hasi udaletxetik eta herritarren etxetako balkoi eta leihoetaraino. Beharko jarri, edozein bengantza egiten zuten bestela". Pisuzko beste aldaketa nagusi bat ere ezarri zuten; "herritik atera nahi zuenak, igarobidea edo 'salvoconducto' a behar zuen, Udaleko

arduradunen bi sinadura biltzen zituena. Bestela ezin zen Villabonatik kanpora atera. Sinatzen zuten, bai, baina udaletxera joan behar zen sinadura bila". Herri bat bereganatzen zuten bakoitzean, herri guztian zabaltzen zen berria: "Avila hartu bazuten, 'la toma de Avila' ospatzeko kanpai-errepika izaten zen. Gu ere askotan bidaltzen gintuzten eskolatik elizara kanpaiak

jotzera". Herriko musika bandak kalejira egin behar izaten zuten 'toma' horien berri zabaltzeko. Musika banda eta etxeferoak izaten ziren Bilbo, Madril, Bartzelona edo beste hiriren bat hartzen zuten bakoitzean. "Herritarrak bandarekin kale-

jiran parte hartzera behartzen gintuzten. Guk pasa genituenak pasa arren, *danba-danba* aldaba joka etortzen zitzaizkigun etxera, *que salgan, que salgan*, oihukatuz. Gu ez ginen ateratzen, noski!", azaldu du zorrotz Pakok. 'Flechas y Pelayos' falan-

gisten kalejirak ere ikus zitezkeen herrian. "Kaleko edozein mutil koskor hartu eta txapela gorria jantzita kalejiran ibiltzen zituzten. 'Flechas' taldea falangistek osatzen zuten. Erreketeak ziren 'Pelayos' taldeko kideak".

INDAR ARMATUAK HERRIAN

Gerrak probintziaz probintzia egin zuen aurrera. Euskal Herria 'Campaña del norte' saioaren baitan hartu zuten mendean eta Asturias arte borrokatu zuten soldaduek. Hortik aurrera Ebroko gudua edo Madrilgoa etorri ziren, bestak beste. 'Campaña del norte' bukatu zenean beraz, soldaduei atsedean eman zieten buruek. "Batailoi bat Villabonara etorri zen deskantsu hartzera, bostehunen bat soldadu izango ziren. Valladolid-koak asko. Gosea ekarri zuten eta zorri galantak ere bai". Berrogei egun inguru igaro zituzten villabonatarren etxeetan. "Ilaran jarri eta etxe bakoitzean binaka banatzen zituzten; bi hemen, beste bi hor, han beste bi...". Gazte haietako asko eta askori ere, nahiz eta gogoz kontra ibili, gerran parte hartu beste erremediorik ez zitzaion geratu. "Gure etxean egon zirenak oso jato-



Isabel Beraza

"Gure etxean egon ziren soldaduak oso jatorrak ziren."

rrak ziren", esan dute Anjelek eta Isabelek. Maritxuk gogoan du haien etxean leku gutxi zegoenez, bakarra egon zela. "Villabonako Barriolanean geunden orduan. Leku gutxi genuenez, soldadu bakarra bidali ziguten. Gure etxean bat eta goran bestea. Pepe eta Isidro, Valladolid-ko anaiak. Gure aitak ez zekien gaztelaniaz hitz egiten eta *ahora la comiendo y luego durmiendo*, esaten zion *orain afaldu eta lotara*, esan nahi zionean. Per-

misoa hartuta etxera joan zirenean, bi panpinekin itzuli ziren bueltan; bizilagunarentzat bat, niretzat bestea". Villabonan egon ziren bitartean, diberti zitezten, astean bi edo hiru txandatan musika emanaldia eskaintzen zien bandak. Hamaiketakoak ematen zitzaizkien, desfiteak egiten zituzten... "Villabonan atsedean hartu zuten soldaduetatik bat baino gehiago geratu zen maiteminduta bertan bizitzen". Maitasuna gerraren erdian..., bizitzaren paradoxa! "Bai, bai; etxeren batzuetako neskekin maiteminduta, batailoi hartako hiru soldadu Villabonan geratu ziren ezkontuta". Batailoi hark Ebrorako bidea hartu zuen gero, "gehiengoak hantxe hartu omen zuen azken arnasa. Haietako oso gutxi itzuli zen etxera, hori esaten zen", azaldu dute hizlariak.

36KO GERRAREN OIHARTZUNAK UDAL-AGIRITEGIAN

Gerrak iraun zuen urteetako berriak bildu asmoz, Villabonako Udal-agiritegira jo dugu. Urte haietako batzarretan hartutako hainbat erabaki jasota daude aktetan. Eta akta horiek, larraz koadernatutako liburukote marduletan daude bilduta. Teknologia berrien laguntzarik gabe, garaiko kaligrafiaz, idazkariak banaka-banaka idatzi zituen eskuz. Egja esan, ez dugu gerraren inguruko aipamen berezirik aurkitu idatzietan. Baina bai gerra hasi aurreko udalbatza osatzen zuten herritar taldearen zerrenda. Esan dugunez, 1936ko

abuztura arte, Federico Urdapilleta zen herriko alkate. Jose Inazio Inurrita, Jose Sorregieta, Jose Darras, Valeriano Saizar eta Nestor Arregi ziren zinegotziak. 1936ko abuztuaren 18ko aktatik aurrera ordea, goitik behera aldatu zen zerrenda. Ordura arte Errepublikan babesten zuen gobernuaraitsi eta Juan Barbek hartu zuen aginte nagusia; orduz gero bera izan baitzen alkate. Jose Zugasti, Desiderio Subijana, Justo Ezeiza, Bautista Zufria eta Tomas Iraola herritarrek osatu zuten zinegotzi taldea.

Gainerakoan, begia jo digu agiritegian aurkitu dugun beste paper sorta batek ere. "Cobro de haberes y demas de los soldados" izenburupean, frentean hil ziren soldadu askoren familiartekoei hilean behin ematen zitzaien laguntza ekonomikoaren berri jasotzen da. Euren borondatez edo behartuta, Francoren alde borrokatu eta bizia galdu zuten mutil gazteen senideei, hilero 173.05 pezeta inguru ematen zitzairen. Jakina, Errepublikaren alde bizia galdu zutenen senideek, ez zuten zentimorik ere ikusi.

ROBERTO, FRONTEAN BORROKAN

Frontean borroka egitea egokitu zitzaion Roberto Garate amasarriari. 18 urte bete berrikan eraman zuten. "Logroñora eraman ninduten lehenengo. Fusila hartu eta

egun batean erakutsi ziguten nola manejatu. Handik segidan borrokarra. Guztira 13 belaunaldi egon ginen". 1928 eta 1940 urteetan jaio ziren mutil gehienek ez zuten

beste aukerarik izan, "Villabonatik boluntarioren batzuk joan ziren baina gehienak, behartuta joan ginen. Nola ukatuko genuen ba? Joaten ez baginen *antipatriotikotzat* sala-



Roberto Garate

"Logroñora eraman ninduten lehenengo. Fusila hartu eta egun batean erakutsi ziguten nola manejatatu"

tu eta bazterren batean hilko gintuzten. Boluntario joan zirenak erreketak ziren. Gu militar behartuak. Bagenuen nahikoa lan. 18-19 urterekin beldurrik batere ez baina, gerra noiz bukatu eta etxera itzultzeko zain geunden". Logroñotik Castellon aldera eraman zituzten eta han bi taldetan bereizi ziren. Tarragona aldera batzuk, Katalunia aldera besteak. "Hamabi batailoï ginen guztira. Gu *Cuarto de Bailén* batailoïko kideak ginen, Camilo Alonso zen gure jenerala eta beti aurrera egiteko prest zegoen. Adunako Metxala baserriko semea eta biok konpainia berean egokitu ginen. *A tiro limpio* ibili ginen. Gogoratzen naiz Cabales mendikatean 2000 metrotik gora ibili ginela. Goiko muturrean geunden. Elurretan, lotarako lekua egin behar izaten genuen gauetz. Egunez, berriz, elurretan babesten ginen arioengandik. Oraindik ere aurkituko nuke leku hura". Robertok batailoï hartan hildako askorik izan ez zela azaldu du, "zaurituak bai, asko. Hildakoak gutxi. Castellonen laranjondoetatik barrena gindoa zela ia harrapatu egin gintuzten. Juxtu bada ere, salbu atera ginen". Robertok gaztetasun txarra tokatu zitzaizela aipatu du, "ni 1937an eraman ninduten Espainiako gerrara. 1939 urtean itzuli nintzen etxera. Eta 39an zer eta alemaniarrak hasi ziren. Beste hiru urte pasa genituen gosetuta kuar-

telean. Ogirik ere ez ziguten ematen nazkante haiek. Ia sei urte gerran, soldadu zela edo kuartelean zela. Gero alemaniarrek artoa, patata..., dena kentzen ziguten etxetik. Taloei esker bizi gara". Gerra,

gosea nahiz ezinikusia ezagutu zituztela esan du Robertok. "Gizakiaren alderdirik oker-okerrena, zalantzarik gabe, inbidia da. Gerra garaian zeresan handia izan zuen inbidia".



Fronteko mutilei eskainitako meza.



Frontean borrokatu behar izan zuten hainbat gizonen kinto-bazkaria. Tartean dira amasar eta villabonatarak. Besteak beste, Esteban Arin, Remigio Ayestaran, Joxe Migel Amenabar, Joakin Aiausti, Jose Urteaga, Gregorio Ezeiza, Juanito Ormazabal eta Jose Antonio Alustiza

GERRAREN ZENTZUGABEKERIA



Pako Etxenike

"Gu bezalakooi, herriko askok eta askok ez ziguten kasurik egiten kalean ikusita: horiei aita hil diete eta, badaezpada, begiratu ere ez!"

Lehen pertsonan gerra bizitzea egokitu zitzaien haur eta gazte haiek iritzi bera dute gerraren inguruan. "Oso gogorra izan zen gerra, txarra benetan. Ikaragarriak egin zituzten. Miseria eta kalamidatea nonahi. Sufrimendua nagusitu zen etxe gehienetan". Hildakoak, gosea, ihesaldiak..., beldurrak gaina hartu zuen. "Anaien arteko gerra izan zen. Hori bai kontu tristea. Etxe askotan, fronte batean anaia bat eta beste aldean bigarrena. Zenbat heriotz, zenbat min!". Abertzale izan eta sentitzeagatik hil zituzten herri-

tarrak ekarri dituzte gogora berriz ere. "Gaixoak errurik gabe hildako guztiak eta haien senideak!". Gerra bukatu eta gero, herria guztiz zatituta geratu zen. "Gu bezalakooi, herriko askok eta askok ez ziguten kasurik egiten kalean ikusita: horiei aita hil diete eta, badaezpada, begiratu ere ez! Herrikoak ziren txarrenak. Nazionalistek beraiek ere gu agurtzeari utzi egin zioten, beldurrez", gogoratu du Pakok. Ezinikusi asko sortu zuen gerrak, "askok gerra bengantzaz egiteko ere aprobetxatu zuen".

136ko Gerra



Gerra garaian, Amasan erreketean guardian egoten zen mutil-koadrila. Tartean dira Jose Luis Arana, Jose Migel Zendoia, Juan Usandizaga, Gregorio Ezeiza, Migel Larrarte, Joxe Mari Iraola, Arretxe, Tomax Urruzola, Joxe Aiestui, Juan Lizaso, On Jose Baztarrika, Juan Jose Pagola, Adrian Berasategi, Juan Sorrondegi, Joxe Amantegi, Benito Agirre, Patxi Begiristain eta Inazio Altuna

36ko Gerra zuzen-zuzenean bizitzea egokitu zitzaizen gazte haiek, barru-barruan gordeta dituzte gertaera haiek guztiak. Hainbat adierazpen gogorregiak irudituko zaizkio agian irakurleren bati; garai hartan bizitako minaren oihartzun biziak dira.



Jabier Berasaluze

Maritxu Gonzalez

Pello Iribar

Anjel Egiño

Pakita Lasa

Isabel Beraza

Pako Etxenike

Roberto Garate

...ETA HURRENGOAN ZER:

Gogorra eta zorrotza izan da hemezortzigarren zenbakia. Gogorra eta zorrotza izan baitzen 36ko Gerra. Ondorena, ordea, ez zen bareagoa izan. Egoera haren berri ezagutuko dugu hogeigarren zenbakian; ihesaldiak, miseria, gosea, izurriteak... Ordura arte, irakurle!



UTZIKO AL DIZKIGUZU ERRETRATU ZAHARRAK?

Azken aldizkaria besterik ez da falta 20 zenbakiko bildumarekin amaitzeko. Argitalpenarekin hasi ginenetik, erretratu zahar mordoak bildu dugu eta egitasmoari liburu amardul batekin eman nahi diogu amaiera. Liburuak Amasako eta Villabonako erretratu zaharrak bilduko ditu bereziki, baina narrazioak ere bere pisua izango du.

Ba al duzu etxean liburuan argitaratuta ikusi nahiko zenukeen argazki zaharririk? Hala bada, jar zaitez gurekin harremanetan. Karidade-enea etxean aurkituko gaituzue Zizurkilgo Bulandegi bidean.

Goizeko 10:00etatik 13:00era jasoko ditugu argazkiak. Etorri aurretik, dei ezazue mesedez 943 696 450 telefono zenbakira.

ARGITARATZAILEAK



Amasa-Villabonako Udala



Manuel Larramendi Kultur Bazkuna

Argitaratzaileak: Manuel Larramendi Kultur Bazkuna, Amasa-Villabonako Udalaren dirulaguntzaz. Ekoizlea: Erroitz B.M. Zuzendaritza eta erredakzioa: Ainhoa Arozena. Maketazioa: Maddi Trutxuelo. Argazkiak: Xabi Ubeda, Erretratu zaharren liburua (Larramendi Bazkuna) eta artxibo ezberdinak. Inprimaketa: Sortu grafikak (Zizurkil). ISSN: 1698-7330. Lege gordailua: SS-1289/04. Tirada: 1.400 ale.

EKOIZLEA



BABESLEA



Eusko Jaurlaritza KULTURA SAILA